



Pitzadurak eta gainerako akatsak

Jose Mari Rodriguez Ibabe*



Askotan teknologi arloan izaten diren gertaerek garrantzi handia dute gure gizartean. Diseinu- ala erabilpen-akats baten ondorioz istripuren bat gertatzen baldin bada, komunikabideetan egiten diren baieztapenak askotan oso interesgarriak izaten dira. Zoritxarrez, behin baino gehiagotan baieztapen horiek ez dira kontzeptu teknikoetan oinarritzen; beste mota bateko interesetan eta ikuspuntuetan baizik. Idazlan honen bitartez komunikabideetan zabaltzen diren albisteen tratamendua azpimarratu nahi genuke. Azken hilabeteetan izandako albisteetan Zoritako zentral nuklearrean aurkitutako pitzadurei buruzko datuak ezin ditugu ahaztu. Informazioa kalera-tu ondoren, berehala hasi ziren erantzunak plazaratzen. Zentralarekin zerikusirik zeukaten agintari ekonomiko batzuentzat pitzadurek eta gainerako akatsek ez zuten zentralaren etorkizuna zalantzan jartzen. Era berean, zenbait giza talde-arentzat zentrala berriz martxan jartzea pentsaezinezkoa da. Bai kasu batean eta bai bestean, erantzunak analisi tekniko sakonak burutu baino lehen gauzatu ziren.

Geografikoki askoz hurbilagoa den beste istripu-mota bat ere gertatu zen. Andoain/Irurtzun autobidearen eraikuntzan istripu baten ondorioz langile bat hil zen. Hurrengo egunean albistea ematean zenbait egunkaritan "arrazoi" batzuk proposatzen ziren. Haietako batzuk nahikoa arinak izan ziren.

Istripuak eta akatsak teknologiaren garapenarekin batera doaz. Hala ere, teknologiaren aurrerape-nak akatsen ikerketan eta ondorengo hobekuntzetan oinarri sendoa du. Prozesu hori martxan jartzeko, agintari teknikoaren eta ekonomikoaren borondateak eta ahalmenak horretarako egokitu-ta egon behar dute. Era berean, bide horren oztopo handienak gizartearen eta komunikabide-en presioei aurre egiteko bapatean emandako erantzunak direla kontsideratu behar da.

Zoritako zentralaren kasuan, nahitaez onartu behar da segurtasunaren ondorioz erabakiak zehatzak eta zorrotzak izan behar dutela eta gal-dera askorentzako erantzuna aurkitu behar dela. Hori ikerketa sakon baten bidez bakarrik lor daiteke, eta horretarako ondo prestatutako talde teknikoek ikerketan parte hartu beharko lukete. Istripu ala matxura garrantzitsu baten ondorioz ikerketa bat martxan jartzen denean, mota desberdinetako arazoak azal daitezke. Sortutako talde teknikoa lana burutzeko gai dela zalantzan jarri gabe, talde horretako partaideek bi motako arazo-ei aurre egin beharko diete. Alde batetik, istripua ala matxura izan aurretik osagaiaren historia tekni-koa ezagutzen saiatu beharko dute; hau da, erreali-tatean (eta ez diseinuaren arabera) osagaiaren lan-baldintzak (tentsio- eta deformazio-egoerak, temperatura-aldaketak, korrosioaren eragina, lane-an izandako ohizkanpoko gertaerak eta abar) nola-koak ziren jakiten. Horretarako osagaiaren fun-tzionamenduan garrantzia eduki dezaketen aldagai guztiak neurtu behar dira. Hau dena, noski, oso kasu gutxitan betetzen da.

Bestalde, taldearen erabaki ala proposamen tek-nikoak erakunde ala pertsona desberdinen inte-resak kontutan hartu gabe egin beharko liriateke. Interes horiek nolakoak izan daitezkeen Zoritako kasuan oso garbi azaltzen dira.

Laburbilduz, teknologiaren inguruan izaten diren istripuak, akatsak eta matxurak ezin dira aztertu teknologia bera kontutan hartu gabe. Azterketa horiek egin ondoren, arduradunek erabakiak hartu beharko dituzte, ikuspuntu sozialak, ekono-mikoak eta abar kontsideratuz, baina ez alderan-tziz. Zoritxarrez gure gizarte honetan azterketa teknikoak hasi baino lehen, "arrazoiak" kalera-tzen dira.



* CEITeko ikerlaria eta Nafarroako Unibertsitateko Injineru Eskolako irakaslea